

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Angeles Ortuoste Arana

*Elgoibar,
Gipuzkoa
(1949)*

Aurkibidea



Biografia



Ereñon jaio zen. Gurasoak ere bertakoak zituen. 11 urtera arte amamarekin bizi izan zen eta gero Elgoibarrera joan zen. Umetan Ereñoko eskolan ibili zen arren, Elgoibarrera joatean, mojen kolegioan eta Anita irakaslearekin egin zituen ikasketak. Euskarazko gau-eskoletan ere ibili zen. Elgoibarko Izarra Elkartean aritu zen lanean, administrari gisa. [Mari Karmen Elustondorekin](#) batera egin zitzaion [elkarrizketa](#), [Euskararen Historia Soziala Elgoibarren](#) proiekturako.

Zintak

EGB-117

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Elgoibarren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2022-06-22
- **Iraupena:** 100 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Euskaraz eginez gero, jolasordurik gabe

- **Erref:** EGB-117/007
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:07:29. **Bukatu:** 00:09:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak

Laburpena:

Ereñoko eskolan erdaraz egin behar izaten zuen, eta jolasordurik gabe lagatzen zituzten euskaraz eginez gero. Etxean euskaraz eta kalean erdaraz egiten zuen han. Jaunartzea euskaraz egin zuela uste du.

2. Gau eskolak; Marxen liburuak langai

- **Erref:** EGB-117/009
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:13:46. **Bukatu:** 00:15:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Gau eskoletan ibili zen Angeles. Felix Etxeberria irakasle zela dauka gogoan. Non egiten zituzten aipatzen dute. Mari Karmenek gogoan dauka Marxen kapitalismoari buruzko liburuarekin aritu zirela itzulpenak egiten ikasten.

3. Elgoibarko Izarraren hasierako urteak; antolakuntza, lokalak, ikastolaren izena

- **Erref:** EGB-117/017
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:28:33. **Bukatu:** 00:30:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Elgoibarko Izarrako bilerak iluntzetan izaten ziren. Irakasleak ere asko inplikatzeko zirela dio Mari Karmenek. Ikastolaren hasierako antolakuntza eta lokalak aipatzen ditu. Ikastolaren izena, hasieran, Escuela San Bartolome izan zen. Don Carlos apaizak lan handia egin zuela dio.

4. Elgoibarko Izarraren hasierako urteak; arloak eta ekintzak

- **Erref:** EGB-117/020
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:35:06. **Bukatu:** 00:37:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Hasierako urteetan Elgoibarko Izarrak lantzen zituen arlo eta ekintzak aipatzen dituzte. Baimenak behar izaten zituzten ekintzak antolatzeko.

5. Ikastolako gurasoak Elgoibarko Izarrako bazkide

- **Erref:** EGB-117/021
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:37:09. **Bukatu:** 00:39:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Angeles Elgoibarko Izarran sartu zenean, bereizita zueden ikastola eta elkarteak. Mari Karmenek laguntzaileak aipatzen ditu. Hasieran, ikastolako gurasoak Elgoibarko Izarrako bazkide izaten ziren.

6. Dirua ateratzeko taberna

- **Erref:** EGB-117/025
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:46:31. **Bukatu:** 00:48:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Jaialdiak egiten ziren Odeoian eta dirua ateratzeko taberna jartzen zuten. Berbenak San Antonetan ere egiten zituzten.

7. Euskarazko antzerkia

- **Erref:** EGB-117/026
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:48:22. **Bukatu:** 00:50:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Miren Vallejok, Pako Juaristik eta familiakoek euskararen alde lan handia egin zutela diote. Pako Juaristik bultzatu zuen euskarazko antzerkia. `Balle´k monologoak egiten zituen. Patxi Lizarralde ere aipatzen dute.</p>

8. Lurgabe musika taldea

- **Erref:** EGB-117/028
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:51:22. **Bukatu:** 00:52:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Begoña Badiola, Regina Arrieta eta Maria Luisa Zubiaurre ziren Lurgabe musika taldeko kideak. Marisa Agarre ere taldekidea zela diote. Expresión Sonora taldeak gazteleraz eta ingelesez abesten zuela diote. Anekdotak bat kontatzen du Mari Karmenek.</p>

9. Bertso saioak jaietan eta gabonetan

- **Erref:** EGB-117/031
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:58:41. **Bukatu:** 00:59:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bertso saioak antolatzen ziren jaietan. Bertsolarien izenak ematen dituzte. Gabonetako jaialdia aspaldikoa dela uste dute.

10. Edozertarako baimena behar

- **Erref:** EGB-117/036
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:03:33. **Bukatu:** 01:05:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Antzerki taldea egin zuten Arakistainekin. Guardia Zibilak joan zitzaizkien behin. Edozertarako behar zuten baimena, hainbat lagun batzeko ere bai.

11. Accion Catolicakoekin kanpinean Zumaian

- **Erref:** EGB-117/039
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 01:09:31. **Bukatu:** 01:12:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Acción Católicakoekin kanpinean joan zen Mari Karmen Zumaiara. Han euskaraz egiten zutela gogoan dauka. Kanpin denda militarra zen, egurrezko sukalde eta komunarekin.

12. Aubixa, umeez euskaraz jolas zezaten

- **Erref:** EGB-117/040
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 01:12:53. **Bukatu:** 01:16:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:

Aubixari buruzkoak aipatzen dituzte. Klean umeez erdaraz jolasten zuten; euskarazko giroan jolasteko sortu zuten Aubixa. Kartoiak batu eta saltzen aritzen ziren batzuk. Konponketa lanak gizonezko boluntarioek egin zituzten.

13. Ikastolako ikasleentzat beka

- **Erref:** EGB-117/042
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 01:20:04. **Bukatu:** 01:21:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Elkarrizketa egiten ari diren eraikinean, ikastola egon zen. Etxepe enpresak kulturarako eta euskararako dirua ematen zuen, baita ikastolako ikasleei beka eman ere. Enpresa eta norbanako askok eman zuten dirua ikastolarako.

14. Ikastola legeztatuta, guardia zibilen bisitak akabo

- **Erref:** EGB-117/043
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 01:21:52. **Bukatu:** 01:24:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

1970eko abenduaren 3an legeztatu zen ikastola. Orditik aurrera ezin ziren guardia zibilak geletan sartu.

15. Ikastolako kuotak garestiak ziren

- **Erref:** EGB-117/044
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 01:24:24. **Bukatu:** 01:27:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Elgoibarko Izarra ikastolatik desberdindu zenean, elkarteak ez zeukan dirurik. Kuota ordaindu ezin zutenentzat, beka sortu zituzten ikastolan. Kuota garestia zela gogoan du Mari Karmenek.

16. Elgoibarko Izarrak euskara eta kultura piztu

- **Erref:** EGB-117/045
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 01:27:51. **Bukatu:** 01:29:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Elgoibarko Izarrak euskara eta kultura gehien piztu zituena izan zen, eta jarraitzen du egiten.

17. Euskara eta erdara noiz eta zela erabiltzen dituzten

- **Erref:** EGB-117/046
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 01:29:40. **Bukatu:** 01:33:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskararen egoera kaskarragoa ezagutu zuten Elgoibarren. Umeei euskaraz eta helduen artean erdaraz egiteko ohitura dutela diote, eta pertsona bategatik erdaraz hasten direla. Ezagututako hizkuntzan egiten diete besteei.

18. Euskaldun berriei zuzentzeak kaltea

- **Erref:** EGB-117/047
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 01:33:13. **Bukatu:** 01:35:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskaldun zaharrek zuzendu egin izan diete euskaraz ikasten ari zirenei, eta atzera egin izan dute haiek.

19. Ongarri kultur taldea abiapuntu

- **Erref:** EGB-117/048
- **Iraupena:** 0:04:41. **Hasi:** 01:35:04. **Bukatu:** 01:39:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Elgoibarko Izarrak behea jo zuenean, Imanolek-eta beste modu batean goratu zutela kontatzen dute. Ongarri Elgoibarko Izarraren aurretik sortu zen, eta hark bultzatzen zituen euskara eta kultura. Aitarekin joaten zen Mari Karmen Ongarriren lokalera telebista ikustera. Kultur eta gastronomia elkartearen izena Ongarri.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-27

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com